



ESKOLAKO AGENDA 21 PROIEKTUAREN EBALUAZIOA 2006/2007 IKASTURTEA



Errealizazioa: HAIZEA

Diseinua: INGURUGELA

2007.ko abendua


AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	4
1. PROIEKTUA MARTXAN JARTZEKO KOORDINAZIO-SISTEMAK .4	
2. PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK	6
3. INGURUMEN-BATZORDEA	7
3.1. Ordezkeriak hautatzeko metodoa	7
3.2. Ikastetxeen zuzendaritzako ordezkeriak eta gurasoen ordezkeriak ingurumen-batzordean	8
4. EA21 PROIEKTUKO BILERAK.....	9
5. EA21 PROIEKTUKO BILERAK.....	11
5.1. EA21 proiektuari buruzko informazioa emateko eta gaiari buruz sentsibilizatzeko jarduerak	11
5.2. Curriculum-jarduerak.....	12
5.3. Kudeaketa iraunkorreko jarduerak.....	13
6. HELBURUEN ETA KONPROMISOEN BETETZE-MAILA.....	14
6.1. Neurri zuzentzaileak	16
6.2. Konpromisoen betetze-maila.....	18
7. KOORDINAZIO-LANEN BALORAZIOA.....	19
8. JARDUERA AIPAGARRIAK	22
9. IRUZKINAK	23
10. ONDORIOAK.....	25
I. ERANSKINA: EGINDAKO JARDUERAK	26

0. SARRERA

Gero eta gehiago dira, urtetik urtera, Eskolako Agenda 21 proiektura atxikitzen diren ikastetxeak, garapen iraunkorraren alde eta ikastetxeen eta horien ingurunearen hezkuntza-kalitatearen alde lan egiteko, udalekin batera.

2006/2007 ikasturtean, 350 ikastetxek lan egin zuten gizarteak ingurumenean zer arazo eragiten dituen ulertzeko, ikastetxeen ingurumen-kudeaketa garapen iraunkorren bidetik joan zedin eta komunitatean parte hartzeko, garapen iraunkorraren alde.



1. PROIEKTUA MARTXAN JARTZEKO KOORDINAZIO-SISTEMAK

Ikastetxearen funtzionamenduan inplikaturako kolektibo guztien parte-hartzea funtsezkoa da proiektua betetzeko. Hori horrela izanda, beharrezkoa da eragile parte hartzaile guztien jarduna koordinatzeko sistemak finkatzea. Hona hemen ikastetxeek erabilitako sistemen glosarioa:



KOLEKTIBOAK	ERABILITAKO SISTEMAK
IRAKASLEEK ETA IKASLEEK BATERA	Partaidetza-batzordea Osasun eta ingurumeneko batzordea Ingurumen-batzordea Unean uneko deialdiak Lehen hezkuntzako geletako ordezkarien koordinatzailea Ordezkarien bilerak Unean uneko bilerak Ingurumen-mintegia Tutoretzak
IRAKASLEEK	Klaustroa Azpiegituretarako batzordea Batzorde pedagogikoa Talde dinamizatzailea Ingurumen Saila Prestakuntza Talde eragilea Talde berdea Intranet Kalitatezko produktuak Web orria, posta elektronikoa Pastoralta Gelaka Irakasle-taldea Koordinazio-bilerak Ziklo/etapako koordinazio-bilerak Lan-bilerak Orientatzailearekin egindako tutoretza-bilerak Tutoretzak
IKASLEEK	Ingurumen-batzordeko ikasleak proiektuan parte hartzen duen irakasle batekin biltzea Gelako batzarrak Ikasle-batzordeak Normalkuntza proiektuarekiko koordinazioa Batzordean eztabaidatu eta erabakitakoaren berri emango die gelakideei gelak ingurumen-batzordean duen ordezkariak Giro berdea (hamabostean behin) Laguntza-taldea Patruila berdea Geletako eta ingurumen-batzordetako ordezkariak Ordezkarien bilerak Unean uneko bilerak Tutoretzak

KOLEKTIBOAK	ERABILITAKO SISTEMAK
IRAKASKUNTZAKOAK EZ DIREN LANGILEAK	Unean uneko bilerak Bilerak sailetako buruekin Ingurumen-batzordea Klaustroa Koordinazio-taldeak Unean uneko deialdiak Elkarrizketak Administratzailearekin koordinatzen dira
GURASOAK	Batzarrak Ingurumen-batzordea Guraso-elkartea Bilerak gurasoekin ikasturte-hasieran Koordinazio-taldeak Gelako bilerak A21eko koordinatzailea guraso-elkarteko lehendakariarekin biltzea Eskola-kontseilua Hitzaldiak Posta elektronikoa
BESTELAKOAK	Gallartako erretiratuen elkarteak Batzorde pedagogikoa Zuzendaritza, A21eko koordinatzailea, irakasleak, ikasleak zuzendaritza: ingurumen-batzordea eta koordinatzaileak Zuzendaritza-taldea Aginte-organo gorenak Web orria, aldizkariak, posta elektronikoa, etab. Ikasle, guraso eta irakasleen arteko bilerak Ikasturte-hasierako bilerak Koordinatzaileen arteko bilerak

2. PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK

Ikastetxe gehienetan, irakasleren batek hartu du parte 2006-2007 ikasturtean egindako prestakuntza-ikastaroetan; hala ikus daiteke ondoko grafikoan.




3. INGURUMEN-BATZORDEA

3.1. Ordezkariek hautatzeko metodoa

Beheko grafikoetan ikus daitekeenez, interes-taldearen arabera aldatzen da ikastetxeek erabilitako sistema ordezkariek hautatzeko. Dena den, ikastetxe gehienetan boluntarioak aurkeztu dira.

IKASLEAK ingurumen-batzordean: ikastetxe gehienek (%54) ikasle boluntarioak hautatu dituzte ordezkariz izateko. Ikastetxe batzuetan, "izangai" bat baino gehiago aurkeztu direnez, bozketak bat egin behar izan dute.


Ikastetxeen %28 inguruk bozketaren alde egin dute haien ordezkariek hautatzeko, eta gainerako %18ak beste sistema batzuk erabili ditu: **esaterako, prestakuntza-ziklo edo maila jakin bateko ikasleak izendatu dituzte ordezkariz, edo, bestela, talde-lana egin dute, ordezkaririk hautatu gabe.** Beste zenbait kasutan, tutoreen erabakiz edo zozketen bidez izendatu ziren ordezkariek.



Ez-irakasleak, gurasoak eta irakasleak ingurumen-batzordean: kolektibo horien kasuan ere, boluntarioak izan dira ordezkariz gehienak, baina bozketarena izan da bigarren sistema erabiliena.



IRAKASKUNTZAKOAK EZ DIREN LANGILEAK



Boluntarioena izan da, **gurasoen** kasuan ere, ordezkariak hautatzeko sistema erabiliena. Aldez aurretik, proiektuari buruzko informazioa eman diete ikastetxeek gurasoei, hainbat bide erabiliz: bilerak, batzarrak, ikastetxeko aldizkaria, eskutitzak, etab.


Beste ikastetxe batzuetan, guraso-elkarteetan hautatu dira gurasoen ordezkariak.

Irakaskuntzakoak ez diren langileen ordezkariak hautatzeko, ikastetxeen %58k egin zuen boluntarioen alde, eta %2k soilik bozketen alde.


Sarri, gonbidapen pertsonalak egin dira eskutitzen bidez nahiz elkarrizketen harian, Eskolako Agenda 21 ekimenaren berri emateko. Beste batzuetan, ikastetxeko zuzendaritzak izendatu du egokien iritzi duen pertsona.

Ikastetxe batzuetan, txandaka aldatzen dira batzordeko ordezkariak urtero.

GURASOAK



IRAKASLE-TALDEA



Irakasleen ordezkari gehienak ere boluntarioak dira, baina badute alde txikiren bat beste sistema batzuekiko.


Ikastetxe askotan, zikloko koordinatzaileak edo tutoreak izaten dira ingurumen-batzordeko ordezkariak.

Ikastetxe txiki batzuetan, irakasle guztiek hartu dute parte.


3.2. Ikastetxeen zuzendaritzako ordezkariak eta gurasoen ordezkariak ingurumen-batzordean

Bildutako datuek diotenez, ikastetxe gehienetan (%93) hartu dute parte zuzendaritzako kideek ingurumen-batzordean. Gurasoen parte-hartzea txikiagoa izan da.

**ZUZENDARITZAREN PARTAIDETZA
INGURUMEN-BATZORDEAN**




**GURASOEN PARTAIDETZA INGURUMEN-
BATZORDEAN**



4. EA21 PROIEKTUKO BILERAK


Ondorengo irudian ikus daitekeenez, **ingurumen-batzordea** behin edo 5 aldiz bitartean bildu ohi da, urtean.

INGURUMEN-BATZORDEKO BILERAK




Irakasleek egindako **koordinazio-bileren** kopurua asko aldatzen da ikastetxetik ikastetxera. 7 eta 15 bilera bitarte egiten dituzte ikastetxeen %30ek. 6 eta 10 aldiz bitartean biltzen da ikastetxeen %26, eta 1 eta 5 aldiz bitartean ikastetxeen %24. **Ikastetxeen %13** astero biltzen da, eta 25 bilera baino gehiago egiten dituzte urtean.

IRAKASLEEN KOORDINAZIO-BILERAK




Zonalde-bilerei dagokienez, 6 eta 10 aldiz bitartean biltzen da ikastetxeen ia %60, behin eta 5 aldiz bitartean %23, eta **11 eta 15** aldiz bitartean %17.

ZONALDE-BILERAK



Ikastetxe gehienetan (%50) hiru foro egiten dira¹. 2 foro egiten dituzte ikastetxeen %40k. Gainerakoek foro 1 edo 4 egiten dituzte.



5. EA21 PROIEKTUKO BILERAK²

5.1. EA21 proiektuari buruzko informazioa emateko eta gaiari buruz sentsibilizatzeko jarduerak

Hainbat jarduera egin dira irakasleei, ikasleei, gurasoei zein irakaskuntzakoak ez diren langileei EA21 proiektuari buruzko informazioa emateko eta sentsibilizazio-lanak egiteko.

Hauek izan dira jarduera nagusiak:

- Bilera informatiboak ikasturte-hasieran, proiektuaren berri emateko edo aurreko urtean hartutako konpromisoak gogora ekartzeko.
- Ingurumen-batzordea martxan jartzea / batzordeko kideak hautatzea
- "Taldea berdea" sortzea, ekologiari buruzko gaiak zabaltzeko.

¹Memoria batzuek zehaztu dute zenbat eskola-foro egin dituzten udal-mailan eta eskola arteko zenbat foro egin dituzten; beste memoria batzuetan, berriz, foro-kopurua adierazten da, foro guztiak diren ala soilik udal-mailako foroak diren zehaztu gabe. Datuak, beraz, ez dira oso zehatzak.

² Eranskinean atxikitzen da egindako jardueren zerrenda

- Deialdiak, informazioa, eztabaidak, iritziak eta bestelakoak ikastetxeko aldizkarian eta web orrian
- Ingurumen-gaiei buruzko hitzaldiak eta bideo-emanaldiak.
- Inkestak eta emaitzen argitalpena.
- Ikastetxean kanpainak egitea (esaterako, plastiko-poltsen eta paperezko zapien kontsumoa murriztekoa), eta kanpaina horiei buruz ikastetxetik kanpo informazioa ematea, horietan parte hartzeko deia eginez.
- Landu beharreko gaiaren aurkezpenak.
- Postontzi berde bat jartzea, ikasleek eta irakasleek iradokizunak egiteko aukera izan dezaten.

Irakasleak informatzeko eta haiekin sentsibilizazio-lanak egiteko bereziki prestatutako jarduera hauek egin dira, besteak beste:

- Prestakuntza-ikastaroak.
- Curriculumaren berrikuspena, landu beharreko gaiarekin hasteko.
- Ikasleekin batera, “txoko berdea” sortzea, EA21 proiektuarekin lotutako albisteak, lanak eta antzekoak erakusteko.

Hauek izan dira **ikasleei** zuzendutako jarduera nagusiak:

- Proiektuaren aurkezpen-saioak power point formatuan, zenbait mailatako ikasleentzat.
- EA21 proiektuko maskota sortzea.
- Irakasleekin batera, “txoko berdea” sortzea, EA21 proiektuarekin lotutako albisteak, lanak eta antzekoak erakusteko.
- Sentsibilizazio-lanerako materialak sortzea (posterrak, marrazkiak)

Gurasoei informazioa eman eta haiekin sentsibilizazio-lana egiteko, aurrez adierazitako jardueraz gain, triptikoak eta zirkularrak banatu dira, EA21 proiektua aurkezteko.

Azkenik, **irakaskuntzakoak ez diren langileentzat** egindako jardueren artean, aipatzekoak dira material-gastuari, ur- eta energia-kontsumoari eta bestelako aldagaiei buruzko datuen bilketa, ikastetxeko kudeaketa-diagnostikoa egiteko beharrezkoa baita.

5.2. Curriculum-jarduerak

Curriculum-jarduera hauek nabarmendu dira:

- Jarduera praktikoak, besteak beste:
 - Azalpen-testuen lanketa.
 - Gaiarekin lotutako kontzeptuen azterketa: energia-motak, kontsumoa, oinatz ekologikoa, etab.
 - Prentsa-artikuluen azterketa



- Idazlanak
- Hitzaldiak eta debateak
- Literatura-lehiaketak, argazkigintzakoak eta bestelakoak, gaiarekin lotutakoak
- Diagnostikoak egitea: datuak behatuz, konparatuz eta bilduz
- Diagnostikoetako datuekin egindako grafikoak.
- Irteerak
- Lantegiak
- Erakusketak

5.3. Kudeaketa iraunkorreko jarduerak

- Konpromisoen dekalogoak eta horien jarraipena
- Ikastetxeko hondakinak kudeatzeko prozesua abiatzea
- Kontsumo iraunkorrerako neurriak

6. HELBURUEN ETA KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

Ikastetxeek helburu jakin batzuk finkatu dituzte curriculumarekiko, ikastetxearen kudeaketarekiko eta partaidetzarekiko, eta lan egin dute ikasturtean zehar horiek lortzeko.

Helburuen betetze-maila neurtzeko modua subjektiboa izanda, ez da erraza hura ikuspegi kuantitatibo batetik neurtzea. Oro har, ikastetxeak pozik daude lortutako emaitzekin; hala ere, aitortzen dute lan handia dutela egiteko oraindik.

Hondakinen gaia eta kontsumoarena izan dira 2006/2007 ikasturtean gehien landu direnak, eta ezarritako helburu asko gai horiek izan dituzte xede.

CURRICULUMA

Esparru honen helburu nagusia da **oraingo curriculum-plantamendua aztertzea eta hartan egokitzea** Eskolako Agenda 21 proiektuan **landu beharreko gaiak**.

Zenbait ikastetxek nabarmendu dute **ikastetxeko departamentuen eta proiektu-koordinazioaren arteko komunikazioa arintzeko moduak bilatu behar direla**. Beharrezko ikusten dute, halaber, jarduerak curriculumeko gero eta esparru gehiagotan jasotzea. Hori dela-eta, helburu hauek zehaztu dira:

- **Gaia zenbait irakasgaitan lantzea**
- **Eskolako Agenda 21 proiektuarekin lotutako eskola-irteera gehiago egitea**
- Eskolako Agenda 21 proiektua **lantzeko esparrutzat hartzea tutoretzak**
- **Ikastetxe osoaren lan-eremu** bihurtzea EA21 proiektua

Ikastetxe batzuek aitortzen dute gutxi direla oraindik gai horiek lantzen dituzten departamentuak; berriz, beste batzuek diote irakasleak ez direla proiektuan inplikatu.

Ikastetxe gehienek emandako hurrengo urratsa kudeaketaren diagnostikoak egitea izaten da, bai ikastetxean bertan, bai udalerrian. Ildo horretatik, ikastetxe ugari bete dituzte diagnostiko-helburuak, baina zenbaitek aitortzen du diagnostiko-lana hobetu daitekeela. Lan-esparru horretako zenbait helburu izan dira, besteak beste, **ikastetxeak sortutako hondakinak aztertzea, herritarren birziklatze-ohiturak ezagutzea, publikitatearen eragina ikertzea eta herriko mugikortasun-alderdiak aztertzea**.

Hautemandako **sentsibilizazio-mailari** dagokionez, hura handitzea helburu nagusietako bat izanda, adierazi behar da ikastetxeak, oro har, gustura ageri direla lortutako datuekin, baina nabarmentzen dute oraindik lan handia dagoela egiteko. Ikasleek bereganatu dituzte kontzeptu teorikoak, baina zailtasunak ageri dira horiek praktikan jartzean, ohitura txarrak oso errotuta baitaude.

Goraxeago adierazi dugun moduan, hondakinen gaia eta kontsumo iraunkorrarena izan dira 2006/2007 ikasturtean gehien landutakoak, eta ezarritako curriculum-helburu asko gai horiek izan dituzte xede:



- **materialak berrerabiltzea eta birziklatzea**
- **hondakin arriskutsuak behar bezala kudeatzea**
- **puskatutakoa konpontzen erakustea**
- etab.

Helburu hauek finkatu dituzte bestelako gaiak (mugikortasuna, zarata, oinatz ekologikoa, etab.) landu dituzten ikastetxeek:

- **errepideetako arriskuei buruzko sentsibilizazio-lana egitea**
- **zarata gutxitzea eta isiltasunaren garrantziari buruzko sentsibilizazio-lana egitea**
- **oinatz ekologikoa aztertzea eta murriztea**

KUDEAKETA

Helburu nagusia da **ikastetxeek, jardunbide onak landuta, ingurumen-kudeaketa eredugarria egin dezatela.**

Ikastetxe batzuek ez dute lortu **kontsumoa murrizteko** helburuak betetzea, eta ikastetxeren batek handitu egin du energia-kontsumoa. Beste ikastetxe batzuek, berriz, jardunbide onen bidean sakonduta, murriztu egin dute uraren, argiaren, pilen, material suntsigarrien eta informatika-materialaren kontsumoa. Esaterako, inprimagailuetako tintaren kontsumoa murrizteko, zenbait ikastetxek posta elektronikoaren alde egin dute, komunikazioak egiteko.

Paper-kontsumoa murriztea izan da ikastetxe ugari finkatutako helburuetako bat, baina ez dira beti lortu emaitza onak. Ikastetxe gehienek adierazi dute helburu hori hobetu egin behar dela hurrengo urteetan. Ikastetxeek antzeko adierazpenak egin dituzte birziklatutako paperaren erabilera handitzeko helburuari buruz, baina, kasu honetan, helburuen lorpen-maila handiagoa izan da. Paper-kontsumoa murrizteko neurri batzuk izan dira, esaterako, fotokopiak bi aldeetatik ateratzearen alde egitea eta geletan kaxak jartzea, paper berrerabilgarria jasotzeko.

Jolas-orduan eta urtebetetze-festetan sortutako hondakinak murrizteko, janaria plastikozko ontzietan garraiatzea bultzatu da, zilarrezko paperaren erabilera murriztea, gozoki-poltsen ordez etxean egindako bizkotxoak edo gailetak eramatea, etab.

Helburutzat hartu dira, halaber, **ikastetxea eta jolas-lekua garbi edukitzeko jarrerak sustatzea** edo **gelak eta ikastetxea leku atseginagoak bihurtzea**. Ikasleek osatutako lan-taldeek lan handia egin dute; esaterako, zenbait ikastetxetan “lagun-talde berdeak” osatu dira, jolas-tokiko hondakinak biltzeko jolas-orduan. Talde horien partaideak txandaka aldatzen dira hamabostena behin.

Helburutzat hartu arren, ez dute ikastetxe guztiek lortu **konpostagailuak martxan jartzea, baratzeak egitea edo ikasleek oihalezko zapi indibidualak erabiltzea jangelan.**

Helburuetako batzuen xedea zen **kontsumo arduratsua sustatzea** eta etxeko hondakinak gaika biltzea, eta, horretarako, ezinbestekoa zen gurasoen parte-hartzea. Emaizak, arlo horretan, ez dira beti izan behar bezain onak.

Finkatutako beste helburu batzuk izan dira **personen arteko elkartasuna indartzea** eta **hartutako erabakiak betetzea**.

Ikastetxeek, halaber, beste helburu hauek zehaztu dituzte: **ingurumen-batzordea sortzea, ibilgailu pribatuetako eta eskola-garraioko joan-etorriak murriztea**, ikastetxera oinez joaten diren ikasleen kopurua handitzea, **oinatz ekologikoa kalkulatzeko, ikastetxeko zarata-maila murriztea** eta **barazki-kopurua handitzea**.

PARTAIDETZA

Ikastetxe askok lortu dute **Eskolako Agenda 21** proiektuak **hezkuntza-komunitatean duen integrazio-maila handitzea**, baina bidea egin behar da oraindik helburu hori behar bezala lortzeko. Ikastetxeek iradoki dute komunikazio-sistema berriak bilatu behar direla, eta, zenbaitetan, aitortu dute irakasleek ezagutu arren, ez dutela guztiek parte hartzen proiektuan.

Horixe bera gertatzen da **helburua ingurumen-batzordeko funtzionamendu- eta partaidetza-sistemak mantentzea eta hobetzea denean**. Emaizta onak lortu dituztela uste dute ikastetxe gehienek, baina askok azpimarratzen dute hasieratik finkatu behar dela batzordearen funtzionamendua eta funtzionamendu horrek eraginkorra eta sistematizatua izan behar duela. Zenbait ikastetxek aipatu dute gurasoek oso gutxi edo ez dutela parte hartu proiektuan, eta nabarmendu dute, halaber, oso inportantea dela kolektibo guztien partaidetza. Ikastetxe batzuek nabarmendu dute garrantzitsua dela garbitzaileekin lan egitea, haien lana funtsezkoa baita hondakinak gaika biltzeko.

Ikasleek batzordean duten parte-hartzeak, ordea, oso balorazio ona lortu du, oro har. Ikastetxeren batean, gurasoak kexu azaldu dira, ingurumen-batzordeko bilerak eskola-ordutan egin direlako.

Halaber, helburu hauek lortu nahi izan dira: **udalerriko Tokiko Agenda 21** proiektuan **parte hartzea, erabilitako informazio-bideen egokitasuna aztertze inkestak egitea, baliabide birtualak bultzatzea, Eskolako Agenda 21** proiektua **komunitate osora zabaltzea, ingurumena babestera bideraturiko eskolaz kanpoko jarduerak bultzatzea**, eta beste helburu asko.

6.1. Neurri zuzentzaileak

Helburuen betetze-maila aztertu ondoren, zenbait ikastetxek neurri zuzentzaileak planteatu dituzte, curriculumari, ikastetxearen kudeaketari eta proiektuan izandako partaidetzari buruzko alderdiak hobetzeko.

Nabarmenezkoa da proiektuaren parte-hartzerekin lotutako neurri zuzentzaileen kopurua.

Alde batetik, barne-partaidetzari dagokionez, ikastetxeek uste dute areagotu egin behar dela ikasleen protagonismoa eta bultzatu egin behar dela haien parte-hartzea. Halaber, inportantea da ikastetxeetako irakasle gehiago eta irakaskuntzakoak ez diren langile gehiago inplikatzea proiektuan.

Ikastetxe ugari nabarmentzen dute gurasoen parte hartzearen arazoa, eta, horrekin batera, haien inplikazioaren garrantzia azpimarratzen dute.

Lehen urrats moduan, zenbait neurri planteatzen dira proiektuari buruzko informazioa zabaltzeko, eta, horren bidez, eragile guztien partaidetza handitzeko.


Hauek dira proposatutako zenbait neurri, ikastetxeek datorren ikasturterako abiarazi nahi dituztenak:

- Ingurumen-batzordearen egitekoak zehaztea (ez mugatzea informazioa zabaltzera), eta bilera-kopurua handitzea
- Bilera bat egitea ekainean gurasoen eta irakasleen ordezkariekin eta proiektu-koordinatzaileekin, datorren ikasturterako plan bat diseinatzeko
- Alkatearen erantzuna aurreratu dadin eskatzea
- Udal-teknikariak eta, oro har, udalek inplikazioa handitu dezaten bultzatzea eta EA21 eta TA21 proiektuen arteko lotura indartzea
- Ikasleek gogoz parte har dezaten bultzatzea, eta, hori lortzeko, egun erabiltzen diren sistemak indartzea; besteak beste: gela guztiak daude ordezkatuta ingurumen-batzordean, eta ordezkariak helarazten dute batzordean landutakoa haien ikaskideei. Ordezkariaren bidez, ikasle guztiek dute ingurumen-batzordeari iradokizunak egiteko aukera. Beste aukera bat litzateke ordezkariak hiru hilerako hautatzea, lanak pertsona-multzo baten artean banatzeko
- Ikasleek ingurumen-batzordean buru-belarri parte har dezaten bultzatzea. Hori horrela izan dadin, ikastetxe batek garrantzitsu irizten dio bigarren hezkuntzako ikasleak boluntarioak izateari, eta, lehen hezkuntzako kasuan, ikasturte-hasiera bilera-egutegi bat finkatzeari.
- Ikastetxe batzuen iritziz, datorren ikasturteko ordutegi-egitura hobetzea komeni da, eragile guztien parte hartzeari bide emateko
- Proiektuari oihartzun handiagoa emateko formulak bilatzea:
 - Urriko egun bat eskaintzea Eskolako Agenda 21 proiektuari, prozesua abiarazteko eta eragile guztiak programaren baitan egingo diren jarduera nagusien berri izan dezaten.
 - Geletako kortxo-taulak erabiltzea informazioa zabaltzeko, eta EA21 proiektuan egindako lana power point formatuan aurkeztea ikasturte-hasieran gurasoekin egiten diren bilereetan.

6.2. Konpromisoen betetze-maila³

Ikastetxe gehienek (%78k) uste du bete egin dituztela aurreko urteetan hartutako konpromisoak. Hala ere, ikastetxeen %20k adierazi du zati batean baino ez dituela bete konpromisoak, eta %2k dio ez dituela bete.

KONPROMISOEN BETETZE-MAILA




³ Fitxaren atal honetan Bai/Ez markatzeko aukera eman da soilik. Batzuek zehaztu egin dute zenbat konpromiso bete dituzten; ordea, beste batzuek ez; beraz, baiezkoko erantzunen ehunekoa ez da oso zehatza.

7. KOORDINAZIO-LANEN BALORAZIOA


Ikastetxeek oso balorazio ona egiten dute Ingurugelari buruz. Ikastetxeen %93k egin dute balorazio ona edo oso ona.

INGURUGELARI BURUZKO BALORAZIOA



Udal-teknikarien lanak askotariko balorazioak jaso ditu. Ikastetxeen bi herenek balorazio ona edo oso ona egin dute. Ikastetxeen %27k adierazi du lan hori nahikoa edo txarra iruditu zaiela. Azkenik, ikastetxeen %9k esan du lan hori oso txarra iruditu zaiela.


UDAL-TEKNIKARIEN LANARI BURUZKO BALORAZIOA






Laguntzarako kontratatutako langileen lanari buruzko balorazio ona edo oso ona egin du ikastetxeen %90k. Lan hori nahikoa izan dela esan du %8k eta txarra edo oso txarra %3k.

LAGUNTZARAKO KONTRATATUTAKOEN LANARI BURUZKO BALORAZIOA




Inkestek adierazten dute ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek lana ona izan dela.

ZUZENDARITZA-TALDEAREN LANAREN BALORAZIOA





Oro har, proiektuaren balorazio ona egin dute zentro gehienek (%62k).



8. JARDUERA AIPAGARRIAK

- EA21 proiektuko maskota sortzea
- Lehiaketak:
 - o Literatura-lehiaketa. Gaia: kontsumo iraunkorra
 - o Argazki-lehiaketa. Gaia: hondakinak eta zaborra. Komiki-lehiaketa. Gaia: ura modu iraunkorren kontsumitzeko aholkuak eta hondakinak”
- Natura-ibilbideen eguna
 - o Iurretako araztegia
 - o Geiker
 - o Energia berriztagarrien ibilbidea
- Luthier-lantegia: musika-tresnak sortzea, hondakinak erabilia
- Kontzertuak ikasleentzat, haiek egindako musika-tresnak joz
- Herri-kiroletarako materiala sortzea, hondakinak erabilia
- Inauteri-mozorroa egitea, birziklatutako materiala erabilia
- Puskatutako jostailuak konpontzen erakustea
- Atzerriko ikastetxeekin truke-proiektua: *Bi errealitate geografiko, ingurumenaren garapen iraunkorra landuz eskola-esparruan.*
- **Ingurumen-liburutegia** sortzea
- “Lagun talde berdea” sortzea. Ikasleek osatutako lan-talde horrek jolas-tokiko hondakinak biltzen ditu jolas-orduan, eta taldeko partaideak txandaka aldatzen dira hamabost egunean behin.
- “Gelarik txukunena” lehiaketa. Hilero aztertzen dira gelak, eta ikasturte-amaieran gela txukun eta ordenatuena saritzen da.
- Udalak egiten duen kudeaketari buruzko informazioa lortzea eta power point formatuko aurkezpenen bidez zabaltzea
- Jangelako hondakin organikoak aprobeztatzea, abereei jaten emateko.
- Tresna digital bat sortzea eskola-materialaren berrerabilpena sustatzeko: www.ez-bota.nireblog.com
- Korridoreetako argien erdia kentzea eta beharrezkoak ez diren berogailuak itzaltzea
- Koadernotxo bat egitea ikasleentzat, ikasturtean banatzen diren kopiak bilduz, betiko koadernoak ez erabiltzeko.
- Trukerako dendaren kudeaketa (materiala ordenatzea, txandak antolatzea, etab.)
- Bigarren eskuko arroparen azoka bat egitea
- EKOMETROA: Jarduera honen helburua da ingurumenarekiko jardunbide onak sustatzea ikasleengan. Jarduera honetan, lantegiek puntuak lortzen dituzte astero (0 puntutik 3 puntura bitartean). Monitoreek ematen dizkiete puntuak, helburuen lorpen-mailari erreparatuta. Sari bat jasotzen dute 35 puntu lortzen dituzten lantegiek.
- Ingurumen-batzordean adosten dira jarduera horren arauak.

9. IRUZKINAK

IRUZKIN OROKORRAK

Denbora falta nabarmendu dute askok. Orduak eta orduak eskatzen ditu proiektuak, eta lan burokratikoak egin beharrak kexak sortzen ditu. Azpimarratzen dute egokia litzatekeela denbora hori Agendako jarduerak egiteko erabiltzea; izan ere, ikastetxeek baldintzak betetzen ote dituzten jakitea bada xedea, Ingurugelako aholkulariek oso ondo ezagutzen dituzte ikastetxe guztiak, eta eskura dute informazio hori.

Oro har, aurten hasi direnek galduta ikusi dute beren burua, batik bat ikasturte-hasieran. Hala ere, EA21 proiektuan aurrera egiteko motibatuta daudela adierazten dute.

Zuzendaritza-taldeek iruzkinek bi ildo kontrajarri jorratzen dituzte.

- Batzuek nabarmendu dute buruzagitzaren babes osoa izan dutela. Serio ekin diote proiektuari, liberazio-orduak eman dizkiete irakasleei eta eman zitzaketan erraztasun guztiak eman dituzte.
- Beste batzuk ez daude batere gustura. Zuzendaritzek akordioa izenpetzen dute, baina ez dute ahaleginik egiten hura betetzeko. Kexu dira liberazio-ordurik eman ez zaielako. Baten batek proposatu du komenigarria litzatekeela Eusko Jaurlaritzak "ohartarazpen" bat egitea zuzendaritzei, proiektuari serio ekin diezaioten.

Adierazi dute ez dela egokia urtero gaia aldatzea, landu eta ulertu gabeko alderdi ugari geratzen baitira.

Adierazi dute zaila dela gurasoen parte-hartzea bultzatzea.

ERAKUNDEEI EGINDAKO ESKAERAK

Nabarmendu da alferrik izango dela ikastetxeetan egindako lana, baldin eta erakundeek kontsumoaren aldeko jarrerak sustatzen badituzte.

Erakundeek inplikazio handiagoa izan behar dutela uste dute batzuk. Ordiziako berritzegunean biltzen diren ikastetxeek idatzi bat bidali diote Ingurumen Sailari, inplikazio handiagoa izan dezan eskatzeko.

Kexu ugari jaso dira, dirulaguntzak eta liberazio-orduak nahikoak ez direla adierazten dutenak. Ikastetxe itunduetan eta pribatuetan liberazio-ordurik ematen ez denez, ikastetxe horiek adierazi dute ikastetxe publikoek baino baldintza kaxkarragoak dituztela.

Udalei buruz, ikastetxeek esan dute sarritan ez direla behar bezala inpliketzen. Esan dute, halaber, udalekiko harremanek estuagoak izan behar dutela, zenbaitetan foroetan baino ez baitira elkartzen.



Eskola- eta udal-foroa prestatzeak lan handia ematen du, eta lortzen diren emaitzak ez dira ahalegin horren parekoak. Sarri, udalen ahalegina alderdi formaletara mugatzen da, eta asmoak ez dira gauzatzen. Gainera, gauzak egiten badira, nahiko astiro egiten dira, eta horrek frustrazioa eragiten die eskoletan parte hartzen dutenei.

Herriren batean, amaitu baino lehenago irten izan da alkatea forotik; horren inguruan, batzuek adierazi dute ikasleek lan handia egiten dutela eta errespetuzko jarrerak erakustea merezi dutela.

INGURUGELARI EGINDAKO ESKAERAK

Oro har, ikastetxeak oso pozik daude Ingurugelak egindako lanarekin.

Ikastetxe gehienek ustez, prestakuntza-ikastaroak oso egokiak eta baliagarriak dira. Hala ere, baten batek adierazi du GARATU prestakuntza-ikastaroak, Ingurugelak emandakoa eta EA21 proiektuko koordinatzaileei zuzendutakoak, xeheago landu beharko lukeela helburuen, adierazleen eta bitartekoen programazio-saioa. Azaldu du koordinatzaile askori saioa egiteko moduak ez diela segurtasunik ematen eta "nahasgarria" iruditzen zaiela.

Eskatu dute Ingurugelako aholkularia edo ikastetxeek kontratatutako aholkularitza-enpresa ikastetxez ikastetxe joatea, koordinazio-taldeari ikastetxean bertan emateko laguntza.

Ikastetxeren batek adierazi du, haien ustez, Ingurugelako aholkulariek ikastetxeei buruzko ikuspegi okerra dutela, eta garrantzi handiegia ematen diotela EA21 proiektuari, proiektuak ikastetxeetan betetzen duen benetako lekua kontuan hartuta. Ez dute ikastetxeen eguneroko funtzionamenduaren berri, eta bete ezinezko jarduerak proposatzen dituzte.

KONTRATATUTAKO ENPRESARI EGINDAKO ESKAERAK

Oro har, ikastetxeak pozik daude laguntzarako kontratatutako enpresak egindako lanarekin.

Hala ere, ikastetxe batzuk kexu azaldu dira, ez direlako bete materialak entregatzeko datak.

Ikastetxeren batek adierazi du kontratatutako enpresak ez duela berdintasunez jokatu ikastetxe guztiekin.

10. ONDORIOAK

- Kolektibo guztien parte-hartzea hobetu beharra dago.
 - i. Gurasoak: nabarmen hobetu daiteke gurasoen partaidetza-maila; gainera, ikastetxeek beharrezkotzat jotzen dute partaidetza hori handitzea.
 - ii. Zuzendaritza-taldea: datu kontraesankorrak daude haien partaidetzari buruz. Ikastetxe gehienetan, ingurumen-batzordearen bileretan parte hartzen du zuzendaritza-taldeak, baina, irakasleek esandakoei erreparatuta, badirudi haien inplikazioa ez dela nahikoa.
 - iii. Irakaskuntzakoak ez diren langileak: langile horien parte-hartzea beharrezkotzat jotzen da, baina oraindik ez dira behar adina inplikatzen proiektuan.
 - iv. Ikastetxearen tamainari erreparatuta, eragileek partaidetzarako zailtasun ezberdinak izaten dituzte.
- Ikastetxeetako koordinatzaileek oso jarrera ona dute proiektuarekiko, baina, zenbaitetan, zailtasunak izaten dituzte beren lana egiteko.
 - i. Haien ordutegiak ez du aukera ematen gainerako kolektiboekin batera lan egiteko
- Ikastetxe gehienak *gustura* edo *oso gustura* daude Ingurugelak, laguntzarako kontratatutako teknikariek eta zuzendaritza-taldeek egindako lanarekin. Hala ere, ehunekoak ez dira hain onak udal-teknikarien lana baloratzean; izan ere, ikastetxeen %36k nahikoa, txarra edo oso txarra iritzi du haiek egindako lana. Ikastetxeek uste dute ez dutela behar bezalako inplikaziorik, eta harreman estuagoak izan behar direla udalekin.
- Oro har, ikastetxeak oso gustura daude egindako lanarekin.

I. ERANSKINA: EGINDAKO JARDUERAK

EA21 PROIEKTUARI BURUZ INFORMATZEKO ETA SENTSIBILIZATZEKO EGINDAKO JARDUERAK

- Ingurumen-batzordea abian jartzea / Batzordeko ordezkariak aukeratzea.
- Ikastetxetik kanpo egiten diren kanpainen berri ematea eta kanpainetan parte hartzea animatzea.
- Eskolako aldizkarian eta webgunean deialdiak, ingurumen-informazioa, eztabaidak, iritziak...
- “Talde berdea” sortzea gai ekologikoak hedatzeko.
- Aztertu beharreko gaiari buruzko erakusketa.
- Hitzaldiak
 - o Beste ikastetxe batzuen esperientzia EA21en barruan
- Bideoak:
 - o “Una verdad incómoda”
 - o “EA21” CD Rom-a
 - o “Tanto brillo ciega”. GAP programa.
 - o “Lurra eta biok” (Ingurugela)
 - o “Garbi”
 - o “Arduratu zaitez”
 - o “Birziklapena”
 - o “Reciclador”
 - o “La huella ecológica”
- Kanpainak:
 - o Plastikozko poltsen eta paperezko mukizapien kontsumoa murrizteko kanpaina.
 - o Hondakinak eta energia-kontsumoa txikiagotzeko kanpaina.
 - o “Autorik gabeko” eguna antolatzea.
 - o GFAREN hondakin-programan parte hartzeko konpromisoa.

IRAKASLEAK:

- Informazio-jarduerak:
 - o EA21 proiektuaren berri ematea klaustro nagusian, etapetako batzarretan edo irakasle guztiek Ingurugelako arduradunarekin egiten dituzten batzar informatiboetan.
 - o Prestakuntza-ikastaroak.
 - o Aurreko ikasturtean hartutako konpromisoak gogoraraztea ikasturtearen hasieran.

- Aldundiarekin sinatutako konpromisoaren berri ematea.
 - Hondakinen prebentziorako Aldundiaren kanpainaren berri ematea.
 - Informazio-posterra iragarki-tauletan edo e-mailen bidalketa honakoekin:
 - Helburuak
 - Egindako diagnostikoen emaitzak (uraren kontsumoa, energiarena...)
 - Hondakinak murrizteko aholkuak
 - elkarrekin.org webgunetik jasotzen den informazioa hedatzea.
- Jarduerak:
- Pintura-pote handiak horiz, berdez eta grisez margotzea eta geletan banatzea.
 - Gabonetako “Merkatu txikia” antolatzea
 - “Txoko berdea” prestatzea
 - “Talde berdea” sortzea gai ekologikoak hedatzeko.
 - Aztarna ekologikoari buruzko inkesta.
 - Curriculumaz aztertzea eta bertan sartu behar diren gaiak denon artean erabakitzea.

IKASLEAK

- Informazio-jarduerak:
- EA21en inguruan egingo diren jarduerak gelan aurkeztea.
 - EA21i buruzko Power Point bat prestatzea, aurreko kanpainetan egin dena azalduz, eta beste geletan aurkeztea.
 - Informazio-posterrak egitea korridoreetan jartzeko.
- Alkatearen erantzuna aztertzea.
- “Aitona-amonak gelara”: aspaldi bizi zuten egoera ezagutzea eta gaurkoarekin alderatzea.
- Tailerrak:
- Azterkosta eta Ibaialde
 - Kontsumo-tailerrak
 - Xaboiak egiteko tailerrak
- Aztertu beharreko gaiaren diagnostikoa ikastetxean eta herrian
- Gabonei begira:
- Gabonetako “Merkatu txikia” antolatzea
 - “Gabonei eta kontsumoari” buruzko hausnarketa
 - Hondurasko neskato baten errealitateaz gehiago jakitea eta Gabonetako merkatuan batutako dirua hara bidaltzea.
- Lehiaketak:
- Logotipo-lehiaketa eta bat aukeratzeko bozketa
 - Argazki-lehiaketa



- EA21erako maskota bat sortzea

GURASOAK

- Informazio-jarduerak:
 - Triptikoak/zirkularrak EA21 aurkeztuz, denda ekologikoaren berri emanez edo kontsumo iraunkorraz mintzatuz Gabonen aurretik
 - Batzarrak guraso ordezkariekin
- Euren seme-alabek egiten dituzten ekintzetan zuzenean parte har dezaten eta laguntza eman diezaieten eskatzea
- Hitzaldiak/bideoak:
 - Udaletxeko teknikariaren hitzaldia
- Inkestak:
 - Etxeko eta eskolako kontsumoaren eta beste gai batzuen inguruko inkestak eta ikastetxearen irizpideei buruzko informazioa

IRAKASLEAK EZ DIRENAK

- Ikastetxearen kudeaketaren diagnostikoan parte hartzea datuak batuz, hala nola, material-gastua, ur- eta energia-kontsumoa...
- Konpromisoak hartzea diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuta.
- Bisitak:
 - Konpostgintzan diharduen enpresa batera

EGINDA DAUDEN CURRÍCULUMEKO JARDUERAK

- Azalpen-testuak lantzea.
- Gaiarekin lotutako kontzeptuen azterketa: energia-motak, kontsumoa, aztarna ekologikoa...
- Prentsa-artikuluen azterketa
- Idazlanak:
 - o Antzezlan bat idaztea ingurumena gai nagusitzat hartuz
 - o Ikastetxeko aldizkarian hondakinei eta kontsumoari buruz idaztea
 - o Hondakinen inguruko kontzientziazio-mezuak idaztea ikastetxeko irratian emateko.
- ZERNOLA proiektuko BIODEGRADAZIOA proban parte hartzea
- Jorratu beharreko gaiari buruzko hitzaldiak
- Lehiaketak:
 - o Literatur lehiaketa. Gaia: Kontsumo iraunkorra
 - o Argazki-lehiaketa. Gaia: Hondakinak eta zaborrak.
 - o Komiki-lehiaketa. Gaia: Uraren kontsumo iraunkorrerako eta hondakinetarako aholkuak
- Gaiari buruzko bideoak ikustea
 - o “Gezi urdina”
 - o “La isla de las flores”
 - o Blue planet-en “Fishing”
 - o “La ciudad de la alegría”
 - o “Calentamiento global”
- Jorratu beharreko gaiari buruzko abestiak eta mahai-jokoak
- Behaketa, konparazioa eta datu-bilketa:
 - o Udalerriko edukiontzien, hormen eta zoruaren azterketa.
 - o Hondakinak kaletik batzeko sistema-motak ezagutzea.
 - o Etxeetara heltzen den publizitatea begiratzea.
 - o Uraren, berokuntzaren, argiaren eta bestelakoen ikastetxeko eta etxeetako kontsumoa aztertzea eta hobekuntzak proposatzea.
 - o Ur-dastatzea herrian dauden ur-motak ezagutzeko.
 - o Ibaien azterketa/inguruan dauden hondakinen fitxa.
 - o Herritik ibilaldia egitea dauden estoldak eta ur garbien eta zikinen ibilbidea ezagutzeko.
 - o Klean ikus daitezkeen energia-motak identifikatzea.
 - o Mugikortasunari buruzko diagnostikoa
 - o Erosketak:



- Familien erosketa-ohiturak
- Herriko dendetan egiten diren erosketak
- Azokako bezeroei eta saltzaileei galdera-sorta egitea
- Produktuen osagaiak, ontziak eta iraupena begiratzea.
- Ikastetxeko eta udalerriko zarata-mapak egitea.
- Egindako azterketetan lortutako datuekin grafikoak egitea.
- Laborategian:
 - Araztegi txiki bat diseinatzea
 - Ordezko energiarekin dabilzan makinak diseinatzea eta eraikitzea
- Posterrak egitea eta honakoak jartzea:
 - Hartutako konpromisoak
 - Lortutako datuak
 - Zabor-erakundeentzietan buruzko informazioa
 - Ur-kontsumoa murrizteko arau batzuk
 - Zarata-termometroa
- Ordenagailuan:
 - “Klik programa”: birziklatzen ikasteko
 - “Zernola.net” programan parte hartzea
 - “Berde-berdea” programa
 - www.eve.es webguneko energia-eraginkortasunari buruzko testa lantzea
 - Landutako esparruari buruzko ideia berriak bilatzea interneten ikastetxean nahiz udalerrian gauzatzeko
- Bisitaldiak:
 - zabortegietara/hondakinen tratamendurako instalazioetara/Garbiguneetara
 - urtegietara, araztegiak, zentral hidraulikoetara
 - Kristina Enea (kontsumo iraunkorreko gelara).
 - Emausera (prebentzioa eta berriz erabiltzea)
 - Delikatuz zentrorak
 - Natur eskoletara
 - Miramongo teknologi parkera
 - Garoñako zentral nuklearrera
 - Oizko parke eolikora
- Ingurumen-ibilbideen eguna
 - Iurretako araztegia
 - Geiker
 - Energia berriztagarrien ibilbidea

- Prebentzioaren, gutxitzearen, berriz erabiltzearen eta birziklatzearen alde lan egitea
 - o Gabonetako publizitatearen aurka
 - o Apurtutako jostailuak konpontzen irakastea
 - o Konposta: jantokiko hondarrekin
 - o Erabilitako olioarekin xaboiak egitea
 - o Esku-lanak egitea material birziklagarrieekin eta hondarrekin (jostailuak, musika-tresnak...).
 - Autobus bat (garraio publikoa nabarmentzeko) eta baratze ekologiko bat
 - Hondarrekin musika-tresnak sortzea eta tresna horiekin kontzertuak egitea ikasleentzat
 - Herri-kiroletarako materiala egitea hondarrekin
 - Inauterietako mozorroa material birziklatuarekin egitea
 - Domino bat egitea tetrabrikak erabiliz
 - o Erabiltzen ez den arropa antzerkirako uztea.
 - o Pilak birziklatzeko ontziak banatzea eta pilak birziklatzearen garrantziaz hitz egitea.
- Kontsumo-tailerrak egitea
 - o Nutrizio-tailerra
 - o Merkataritza-tailerra
 - o Publizitate-tailerra
 - o Haztegi ekologikoen tailerra
- Sentsibilizazio-jarduerak
 - o Aholku ekologikoak
 - o Gure bizimoduari eta kontsumo-moduari buruzko eztabaidak eta inkestak
 - Ikasle bakoitzak dauzkan jostailuen zerrenda egitea eta horri buruz eztabaidatzea
 - Etxean laranja-zukua egiteko prozesuaren eta laranja-zuko freskagarri baten ekoizpenaren eraginak neurtzea eta alderatzea.
 - o Kyotoko Protokoloaren edukiak aztertzea.
 - o Hondakinek eragindako ingurumen-kalteari buruzko mahai-ingurua
 - o Planetako lekuetan pertsonako sortzen diren hondakinak kalkulatzeko eta desberdintasunaren arrazoiez eztabaidatzea.
 - o Ogia egiteko prozesuan erabiltzen diren energia-motak aztertzea (hazitik ogira arte)
 - o Etxean egiten dugun janaria eta aurrefabrikatua alderatzea. Bakoitzaren aztarna ekologikoa kalkulatzeko.
 - o Bide-hezkuntza lantzea.
- Proiektua: "Bi errealitate geografiko ingurumenaren iraunkortasuna hezkuntzaren arloan garatzeari dagokionez: trukea ikastetxe frantses batekin" Ingurumen-liburutegia sortzea

EGINDA DAUDEN KUDEAKETA IRAUNKORREKO JARDUERAK

- “Lagun-talde berdea” sortzea: hamabostean behin aldatzen den ikasle-taldea da eta jolastorduan jolastokiko hondakinak batzeaz arduratzen da.
- Aurreko urteetako hobekuntza-proposamenak ezagutzea eta abian jartzea.
- Postontzi berdea jartzea ikasleek nahiz irakasleek iradokizunak egin ahal izan ditzaten.
- Konpromisoen dekalogoia eta horren jarraipena.
- Diagnostikoa.
 - Ikastetxeko edukiontzien kopurua
 - Komunen egoeraren azterketa
 - Paper-kontsumoa
 - Lurrean dauden hondakinen jarraipena
 - Iturrien jarraipena (irekita/itxita)
 - Ikastetxean eta jantokian astero birziklatzen dena pisatzea eta dagokion edukiontzira eramatea.
 - Gela berezietan (informatika-gelan, laborategian...) sortzen diren hondakinak aztertzea
 - Opariak zerekin biltzen diren aztertzea.
 - Gelara eramaten den materiala kontrolatzea: kutxatilak...
 - Etxeetara heltzen den propaganda elkartzeara eta pisatzea, eta estatistikak egitea.
 - Ikastetxeko eguzki-plaken bidez sortutako energia aztertzea, datuak batzea eta grafikoak egitea.
 - Udalean egiten den kudeaketari buruzko informazioa lortzea eta Power Pointeko aurkezpenen bidez horren berri ematea.
- Ikastetxeko hondakinak kudeatzeko prozesua abiaraztea
 - Puntu garbi bat antolatzea
 - Paperaren, plastikoaren, pilen, tonerren eta hondakin arriskutsuen gaikako bilketa egitea eta behar bezala kudeatzea.
 - Ikastetxearen sarreran edukiontzi bat jartzea boligrafoak, errotuladoreak, lekeda eta abar batzeko
 - CDak batzeko sistema bat ezartzea
 - Arropa batzea
 - Birziklatutako tonerren, paperaren, plastikoaren eta abarren kopurua erregistratzea.
 - Ikastetxeko jaietan gaikako bilketarako poltsa gehiago jartzea.
 - Olio-bilketa jantokian.
 - Jantokiko hondakin organikoak etxeko animalientzat aprobetxatzea.



- Eskolako materiala berriz erabiltzea sustatzeko tresna digital bat sortzea: [www.ez –bota.nireblog.com](http://www.ez-bota.nireblog.com)
- Garbiketa-produktuen kontsumoa murriztea
- Kontsumo iraunkorrerako neurriak
 - URAREN kontsumoa murrizteko
 - Komunetako zisternetan botilak jartzea
 - Ikastetxetik irtetean iturriak itxita daudela zaintzea
 - ENERGIAREN kontsumoa murrizteko
 - Argiak piztuta ez uzteko esloganak asmatzea eta leku egokietan kokatzea.
 - Geletako pertsianak igotzea argia piztu baino lehenago.
 - Ordenagailuak arratsaldeetan itzalita edukitzeko programa berezi bat erabiltzea
 - Korridoreetako argien erdiak kentzea eta beharrezkoak ez diren berogailuak itzaltzea.
 - Termostatoak erabiltzea berogailuak kontrolatzeko.
 - Ikastetxeko zenbait lekutan termometroak jartzea tenperatura kontrolatzeko.
 - Ateetan mekanismo bereziak jartzea automatikoki itxi daitezen, bero gutxiago gal dadin.
 - PAPERAREN kontsumoa murrizteko
 - Paper birziklatua erabiltzea eta kopiak alde bietatik egitea.
 - Papera berriz erabiltzea. Erabilitako papera batzeko eta beste aldetik erabiltzeko kutzak ipintzea.
 - Erabilitako papera duen fotokopiagailu bat jartzea.
 - Laborategian eta sukaldean eskuak lehortzeko zapiak erabiltzea.
 - Oihalezko muki-zapiak erabiltzea sustatzeko kanpaina.
 - Formatu digitala erabiltzea sustatzea.
 - Koadernotxo bat egitea ikasturtean banatzen diren kopiekin, ohiko koadernoak ez erabiltzeko.
 - Tuperrak erabiltzea sustatzeko kanpaina, aluminiozko paperaren erabilera murrizteko.
 - Ospakizunetan kristalezko platerak eta edalontziak erabiltzea.
 - Etxean egindako bizkotxoak eta galletak sustatzea urtebetetzeetan banatzen diren gozoki-poltsen ordeez.
 - Ikasgeletan erabilitako materiala zenbatzea. Erabiltzen den material berri guztia taula batean idaztea.
 - Irakurketa-liburuak maileguan hartzea, ikastetxean edo liburutegian, eta ikasleen artean liburu-trukea sustatzea.

- “Gelarik txukunena” lehiaketa. Hilean behin ikasgelak aztertzea, eta ikasturtearen amaiera aldean gelarik garbienari eta ordenatuenari saria ematea.

- EKOMETROA
 - Ikasleen artean Ingurumen Praktika Onak sustatzea da jarduera honen helburua. Jarduera honetan tailer bakoitzak puntuak lortzen ditu astero (0tik 3ra). Puntuak begiraleek ematen dituzte, eurek baloratzen baitute helburua bete den ala ez. 35 puntu lortzen dituzten tailerrek saria eskuratzen dute. Jardueraren arauak Batzordean bateratu dira.
- Irteerak bizikletaz udalerrian
- Garbiketa
 - Ikastetxea eta inguruak garbi edukitzea.
 - Parkeetan geratzen diren txikle-arrastoak garbitzea
- Truke-dendaren kudeaketa (materiala ordenatzea, txandak antolatzea...)
- Jostailuen kanpaina: ikasleek euren jostailuak eramaten dituzte ikastetxeko “merkatu txikian” saltzeko
- Bigarren eskuko arroparen azoka egitea
- Jai ekologikoa prestatzea
 - Erosketa ekologikoa
 - Janari ekologikoa (mazedonia hamaiketakoan...)
- Irakasleei, irakasle ez diren langileei eta gurasoei proposamenak egitea euren aztarna ekologikoa murrizteko.
- TXOKO BERDEA sortzea:
 - Hondakinak banatzeko edukiontziak.
 - Ingurumenari buruzko albiste onak eta txarrak, ikasleek ekarrita.
 - Konpromisoen zerrenda.
- Gaiarekin bat datorren apainketa: beiratea, korridorea...
- Erakusketak zenbait gairekin:
 - Etxeetan sortzen diren hondakin arriskutsuen bilketa
 - Edukiontzien erabilera
- Bidegorrien ibilbidea egitea
- Zarata-mapak egitea eta zarata txikiagotzeko konponbideak proposatzea